# euskara eskolak

**2023-2024 ikasturtea**

euskal etxea
centre cultural barcelona

## Gure funtzionamendua:

| MAILA | |
|---|---|
| C1.3 | C1 |
| C1.2 | |
| C1.1 | |
| B2.3 | B2 |
| B2.2 | |
| B2.1 | |
| B1.3 | B1 |
| B1.2 | |
| B1.1 | |
| A2.2 | |
| A2.1 | |
| A1 | |

↑

Euskal Etxeko euskara-irakaskuntzak HABEren curriculumak ezarritako ildoak jarraitzen ditu. Erakunde hori helduen (16 urtetik gorakoen) euskalduntzeaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako Autonomiadun Erakundea da. Nahiz eta, 18-19 ikasturtetik aurrera, mundu osoko euskal etxeetako euskara eskolen kudeaketa Etxepare Institutuak bere gain hartu HABEren eskutik, Etxeparek hala eskatuta, ez dugu gure curriculuma aldatu.

Bartzelonako Euskal Etxean, euskalduntze prozesua ondoko koadroan agertzen diren mailetan banatuta dugu. ikasleek mailetan gora egin ahala, matrikulen kopurua jaitsi egiten da, eta talde homogeneoak sortzeko arazoak izaten ditugu. Horregatik, taldea sortu ahal izateko, B1 mailatik gorako taldeak ez dira homogeneoak izango; bestela esanda, talde berean azpi-maila desberdinetako ikasleak elkartuko ditugu. HABEren curriculumak aukera ematen du horretarako: ikaslearen gaitasuna baloratzen/ebaluatzen denez, talde berean gramatika-egitura gehiago edota gutxiago ezagutzen dituzten ikasleak elkar daitezke.

Laburbilduz, B1 mailatik aurrera zikloka funtzionatuko dugu: talde heterogeneo horretan matrikulatuta dagoen ikasleak maila hori bitan edo hirutan egin beharko du. Hori dela eta, ikasleek materiala errepika ez dezaten, hiru urteko zikloak egin ditugu (adibidez: 2017-2018 ikasturtean A materiala erabiliko dugu, 2018-2019 ikasturtean B materiala, 2019-2020 ikasturtean C materiala, 2020-2021 ikasturtean A materialarekin hasiko gara berriro…). Jakina, talde homogeneoak sortzeko nahikoa jende egonez gero, horixe egingo genuke.

**Zure maila zein den ez badakizu**, eska ezazu hitzordua proba bat egiteko: barcelona@euskaletxea.cat

## Maila-egiaztagiriak eta titulu ofizialak:

Ikasleak behar badu, Euskal Etxeak ikasturte amaieran maila-egiaztagiria egin diezaioke. Hala ere, euskara-gaitasun titulu ofiziala nahi badu, HABEren azterketa ofizialera aurkeztu behar du.

HABEk B1, B2, C1 eta C2 mailetako azterketen deialdi irekia egiten du udaberrian eta udazkenean. Azterketa egin nahi duten ikasleek, HABEn izena eman eta tasa bat ordaindu behar dute. Azterketa horiek EAEko hiru hiriburuetan egiten dira, baina Madrileko eta Bartzelonako euskal etxeetan ere egin daitezke.

Hauek dira tituluen baliokidetzak:

| **Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa** | | **EAE-CAV** | | | | **Nafarroa** | | **Hizkuntza Eskola Ofiziala*** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | HABE | Hizkuntz Eskakizunak | | | | | |
| | | | Arruntak | Hezkuntza eta Ertzaintza | | | | |
| **C2** | | C2 | 4. HE | 3. HE | | | | |
| **C1** | | C1 | 3. HE | 2. HE | | EGA | | |
| **B2** | ↑ | B2 | 2. HE | 1. HE | ↑ | | ↑ | 5.a (Aurreratua) |
| **B1** | | B1 | 1. HE | | | | | 3.a (Tartekoa) |
| **A2** | | A2 | | | | | | 2.a (Oinarrizkoa) |
| **A1** | | A1 | | | | | | |

* HEOeko tituluen baliokidetzak 2007-2008 ikasturteko ikasketa planaren osteko tituluei dagozkie.

## Aurrez aurreko ikastaroak:

Astean 4 ordu egiten ditugu urritik ekainera; alegia, 128/130 eskola-ordu guztira (ordutegiak taldearen beharren arabera molda daitezke). Zazpi ordutegi hauek eskaintzen ditugu:

| egunak | ordutegiak | Hasiera eta bukaera |
|---|---|---|
| astelehen eta asteazken | 10:00-12:00<br>17:30-19:30<br>19:30-21:30 | Lehen eguna: 2023/10/02<br>Azken eguna: 2024/06/19 |
| astearte eta ostegun | 10:00-12:00<br>17:30-19:30<br>19:30-21:30 | Lehen eguna: 2023/10/03<br>Azken eguna: 2024/06/12 |
| larunbat | 10:00-14:00 | Lehen eguna: 2023/10/07<br>Azken eguna: 2024/06/15 |

Maila guztiak ordutegi guztietan eskaintzen ditugu; beraz, nahiago duzun ordutegian matrikulatu behar duzu. Taldea sortzeko, gutxienez 6-8 lagunek egin behar dute matrikula maila eta ordutegi berean. Matrikula-aldia bukatutakoan, zein talde sortu den edo sor daitekeen begiratuko dugu, eta hurrengo bi edo hiru egunetan talderik gabe geratu diren lagunekin telefono edo e-posta bidez harremanetan jarriko gara ordutegi aldaketa eskaintzeko edo talde bat sortu ahal izateko. Adibidez: 17:30etan 3 lagun eta 19:30etan 5 lagun badaude, ikasleak elkartuz talde bat sortzen saiatuko gara. Horregatik, **matrikulan bi ordutegi jartzen badituzu, taldeak errazago sortuko ditugu (zure lehenengo aukera ateratzen ez bada, edozein aldaketa egin aurretik, telefonoz deituko dizugu)**. Matrikulazio epeen barruan matrikulatzen ez bazara, taldeak sortzeko aukera gutxiago egongo dira.

COVIDaren berragertze baten ondorioz Euskal Etxea berriro konfinamenduagatik itxi behar bada, eskolekin on line jarraituko dugu ikasgeletara itzuli ahal den arte.

## Autoikaskuntza Internetez:

Ikasleak irakasleak agindutako ariketak bakarka egingo ditu etxean: aste baten edo bi astetan unitate bat, unitate eta erdi, bi unitate… Hamabostean behin, on line, taldekako mintza saioa egingo da ikasleen artean mintzapraktika egiteko. Horretaz gain, on line eta hamabostean behin ere, bakarkako tutoretza egingo da: egindako lana aztertu, zalantzak argitu, egindako idazlanaren zuzenketak azaldu… (ikasleen beharren arabera, tutoretzen maiztasuna txiki daiteke). Ideia zera da: aste batean taldekako mintzasaioa egitea eta hurrengo astea tutoretza egiteko gordetzea (behar bada).

| | Bakarkako lana | | Taldekako mintza saioa | | Tutoretza |
|---|---|---|---|---|---|
| A1, A2 | - Unitateak Moodle plataforman (automatikoki zuzenduta)<br><br>- 15 egunetan unitate bat, gutxi gorabehera | + | - 15ean behin<br>- **Ordubeteko saioa**<br>- Ostiraletan 10:00etan edo 18:00etan (1) | + | - 15ean behin<br>- 30 minutu<br>- Ostiral goiz edo arratsaldean (2) |
| B1, B2 | | + | - 15ean behin<br>- **Bi orduko saioa**<br>- Ostiraletan 10:00etan edo 18:00etan (1) | + | |
| C1 | - Unitateak PDF formatuan (erantzunekin) | + | | + | |

(1) Ordutegia alda daiteke, talde osoak horrela adosten badu.
(2) Ordua (eta, agian, eguna ere bai) ikasleak irakaslearekin adostuko du.

| euskara eskolak | 2023-2024 ikasturtea | euskal etxea centre cultural barcelona |
|---|---|---|

## Matrikulatzeko epea eta prezioa:

| | Noiz eta zenbat | Oharrak |
|---|---|---|
| Matrikulatzeko epea: | Irailaren 4tik 22ra | + Urtarrilaren 10etik 24ra matrikulatzeko bigarren aukera izango duzu; beti ere, irailean sortutako taldeetan lekua badago eta taldeak duen euskara-maila badaukazu. |
| Prezioa: | 385 € Euskal Etxeko bazkideak<br>550 € Ez bazkideak | + Aurrez aurrekoak eta on linekoak prezio bera.<br>+ Epeka ordain daiteke.<br>+ Matrikulatzean bazkide egiten bazara eta ikastaroa amaitu aurretik bazkidetzatik baja ematen baduzu, matrikularen aldea ordaindu egin beharko duzu. |

## Ordainketa:

**Matrikula–orria ematerakoan, matrikula osoa ordaindu beharko duzu; edo, epeka ordainduz gero, 100€ko matrikula-tasa**. Tasaz gainerakoa guk hartuko dizugu banku-helbideratzearen bidez. Matrikula ordaintzeko hiru aukera daude:

| | Ikasleak ordaindu | | Euskal Etxeak bankutik kobratuko du | | | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A aukera: | 385/550 € | | | | | | | = | **385/550 €** |
| | matrikula tasa | | urria | | azaroa | | abendua | | |
| B aukera: | 100 € | + | 285/450 € | | | | | = | **385/550 €** |
| C aukera: | 100 € | + | 95/150 € | + | 95/150 € | + | 95/150 € | = | **385/550 €** |

**Sortutako taldeetan integratu ezin bazara, ordaindutakoa itzuliko dizugu.** Ikastaroa hasitakoan, matrikula osoa ordaindu aurretik baja hartuz gero, ez ditugu ordura arte ordaindutako kuotak itzultzen.

Prezio honen barruan ez daude A1, A2 eta B1 mailetan erabiltzen ditugun material koadernatuak.

## Nola matrikulatu:

**Euskal Etxean bertan:**

1. Idazkaritza-ordutegia: 11:00-13:00 eta 16:00-20:00 astelehenetik ostiralera. Telefonoa: 93 310 22 00
2. Informazio-orri osoa ondo irakurri.
3. Matrikula-orria bete (daturen bat falta bada, matrikulazio epearen azken eguna baino lehen eman beharra dago. Ikastaroa epeka ordaindu nahi baduzu, ez ahaztu zure bankuko datuak jartzea. Bazkidea bazara eta kontu beretik ordaindu nahi baduzu, bankuko datuetan jarri "bazkide" eta kito).
4. Matrikula tasa edota ikasturte osoa ordaindu (txartel bidez egin daiteke) .

**Internetez:**

1. barcelona@euskaletxea.cat e-postara mezu bat idatzi matrikulatu nahi duzula esanez. Informazio orria eta matrikula-orria jasoko dituzu e-mail baten bidez.
2. Informazio-orri osoa ondo irakurri.
3. Matrikula-orria zure ordenagailura jaitsi eta bete (daturen bat falta bada, matrikulazio epearen azken eguna baino lehen eman beharra dago. Ikastaroa epeka ordaindu nahi baduzu, ez ahaztu zure bankuko datuak jartzea. Bazkidea bazara eta kontu beretik ordaindu nahi baduzu, bankuko datuetan jarri "bazkide" eta kito).
4. Matrikula-tasa edota ikasturte osoa ordaindu La Caixako Euskal Etxearen kontu honetan: ES56 2100 1089 70 0200039109. Kontzeptuan "euskara + izen–abizenak" jarri nork ordaindu duen jakin dezagun. Agian, diru-sarreraren egiaztagiriaren kopia eskatu beharko dizugu; beraz, gorde ezazu ondo **(guk EZIN dugu tasa zure kontutik hartu)**.
5. Matrikula-orri betea e-postaz bidal iezaguzu, eta e-posta berean ordainketaren data esaguzu; horrela, gure administrariak ea akatsik egon den konprobatuko du.
6. Epeka ordaindu nahi baduzu eta matrikula-orria sinatu ezin izan baduzu, matrikula-orria inprimatu behar duzu den-dena beteta, eta eskolako lehen egunean **sinatuta** ekarri beharko duzu

# classes d'euskara

**curs 2023-2024**

euskal etxea
centre cultural barcelona

## El nostre funcionament:

L'ensenyament de l'euskara a l'Euskal Etxea segueix les directrius del currículum d'HABE que és l'ens autònom del Govern Basc que s'encarrega de supervisar l'aprenentatge de l'idioma per adults (a partir dels 16 anys). Tot i que, a partir del curs 18-19 i de la mà d'HABE, l'Institut Etxepare va assumir la gestió de les classes d'euskara de les euskal etxeak arreu del món, no hem canviat el nostre currículum, ja que així ens ho va demanar Etxepare.

A l'Euskal Etxea de Barcelona hem dividit el procés d'euskaldunització en els nivells que apareixen en el quadre de la dreta. El nombre de matrícules es redueix a mesura que els alumnes pugen de nivell, la qual cosa ens provoca problemes per poder crear grups homogenis. Per això, a partir del nivell B1 els grups no seran homogenis. En altres paraules, ajuntarem alumnes de diferents subnivells al mateix grup, ja que el currículum d'HABE dóna possibilitats per fer-ho: com que es valora/avalua la capacitat pròpia de l'alumne, al mateix grup es poden integrar alumnes que coneixen més o menys estructures gramaticals.

| NIVELL | |
|---|---|
| C1.3 | C1 |
| C1.2 | |
| C1.1 | |
| B2.3 | B2 |
| B2.2 | |
| B2.1 | |
| B1.3 | B1 |
| B1.2 | |
| B1.1 | |
| A2.2 | |
| A2.1 | |
| A1 | |

En resum, a partir del nivell B1 funcionarem amb cicles: els alumnes que estiguin matriculats en aquests nivells heterogenis hauran de fer dues o tres vegades el mateix nivell. Per això, perquè el alumnes no repeteixin el material any rere any hem fet cicles de tres anys (per exemple: el curs 2017-2018 s'utilitzarà el material A; el curs 2018-2019 el material B: el curs 2019-2020 el material C; el curs 2020-2021 tornarem a començar amb el material A;...). Naturalment, si hagués prou alumnes per crear un grup homogeni, ho faríem.

**Si no saps el teu nivell i vols fer una prova**, demana cita en: barcelona@euskaletxea.cat

## Certificats de nivell i títols oficials:

Si l'alumne el necessita, l'Euskal Etxea li pot fer un certificat de nivell al final de curs. Però, si el que vol és un títol oficial, s'ha de presentar a l'examen oficial d'HABE.

HABE fa convocatòries obertes d'exàmens a la primavera i a la tardor dels nivells B1, B2, C1 i C2. Els alumnes que vulguin fer l'examen, s'han d'inscriure en HABE i pagar una taxa. Aquests exàmens es fan a les tres capitals de la CAV, però també es poden fer a les euskal etxeak de Madrid i Barcelona.

Aquestes son les equivalències dels títols:

| Marc Europeu de Referència | EAE-CAV | | | Nafarroa | Escola Oficial d'Idiomes* |
|---|---|---|---|---|---|
| | HABE | Perfils lingüístics | | | |
| | | Comuns | Educació i Ertzaintza | | |
| **C2** | C2 | 4t PL | 3r PL | | |
| **C1** | C1 | 3r PL | 2n PL | EGA | |
| **B2** | B2 | 2n PL | 1r PL | | 5è (Avançat) |
| **B1** | B1 | 1r PL | | | 3r (Mig) |
| **A2** | A2 | | | | 2n (Bàsic) |
| **A1** | A1 | | | | |

* Les equivalències de l'EOI són dels títols posteriors al pla d'estudis implantat al curs 2007-2008.

# classes d'euskara

**curs 2023-2024**

euskal etxea
centre cultural barcelona

## Classes presencials:

Fem 4 hores setmanals d'octubre a juny; es a dir, un total de 128/130 hores lectives (es podrien adaptar a les necessitats del grup). Oferim aquests set horaris:

| dies | horaris | Inici i final de curs |
|---|---|---|
| Dilluns i dimecres | 10:00-12:00<br>17:30-19:30<br>19:30-21:30 | Primer dia: 02/10/2023<br>Darrer dia: 19/06/2024 |
| Dimarts i dijous | 10:00-12:00<br>17:30-19:30<br>19:30-21:30 | Primer dia: 03/10/2023<br>Darrer dia: 12/06/2024 |
| Dissabtes | 10:00-14:00 | Primer dia: 07/10/2023<br>Darrer dia: 15/06/2024 |

Oferim tots els nivells en tots els horaris, per la qual cosa us heu de matricular a l'horari que preferiu. Com a mínim s'han de matricular 6-8 persones al mateix nivell i horari perquè es creï grup. Quan acabi el termini de matriculació mirarem quins grups s'han creat o es poden crear, i els dos o tres dies següents ens posarem en contacte mitjançant e-mail o telèfon amb les persones que s'hagin quedat sense grup per oferir-los un canvi d'horari o intentar crear un grup. Per exemple, si hi ha 3 alumnes de 17:30 a 19:30 i 5 de 19:30 a 21:30, intentarem ajuntar-los tots en el mateix grup. Així que **si poseu dos horaris a la matrícula serà més fàcil crear grups (si no surt la vostra primera opció, sempre truquem per telèfon abans de fer un canvi)**. Si no us matriculeu dintre del termini, hi haurà menys possibilitats que es creïn grups.

Si hi ha algun rebrot del Covid-19 i por motius de confinament s'ha de tancar el centre cultural, continuarem amb les classes on line fins que es pugui tornar a les aules.

## Autoaprenentatge per Internet:

L'alumne farà a casa els exercicis que li mani el professor: en un parell de setmanes una unitat didàctica, una unitat i mig, dues unitats… Cada quinze dies es farà una sessió de conversa de grup on line per treballar l'expressió oral. A més, també on line i cada quinze dies, es farà una tutoria individual: analitzar la feina feta, aclarir dubtes, explicar les correccions de les redaccions… (segons les necessitats dels alumnes, la freqüència de les tutories es pot reduir). La idea es fer una sessió de conversa una setmana i reservar la setmana següent per fer una tutoria (si cal).

<table>
<tr><th>Nivell</th><th>Feina individual</th><th></th><th>Conversa en grup</th><th></th><th>Tutoria</th></tr>
<tr><td>A1, A2</td><td rowspan="2">- Unitats a la plataforma Moodle (correcció automàtica)<br>- Més o menys, una unitat cada 15 dies.</td><td>+</td><td>- Cada 15 dies<br>- Sessió d'una hora<br>- Divendres a les 10:00 o a les 18:00 (1)</td><td>+</td><td rowspan="3">- Cada 15 dies<br>- 30 minuts<br>- Divendres al matí o a la tarda (2)</td></tr>
<tr><td>B1, B2</td><td>+</td><td rowspan="2">- Cada 15 dies<br>- Sessió de dues hores<br>- Divendres a les 10:00 o a les 18:00 (1)</td><td>+</td></tr>
<tr><td>C1</td><td>- Unitats en format PDF (amb solucions)</td><td>+</td><td>+</td></tr>
</table>

(1) Es pot canviar l'horari, si tot el grup està d'acord.
(2) L'hora (i, potser, també el dia) es consensuarà entre l'alumne i el professor.

# classes d'euskara

**curs 2023-2024**

## Període de matriculació i preus:

| | Quan i quant | Notes |
|---|---|---|
| Període de matriculació: | Del 4 al 22 de setembre | + Del 10 al 24 de gener hi haurà una repesca: us podreu matricular sempre i quan hi hagi lloc als grups que s'hagin creat al setembre i si teniu el mateix nivell d'euskara. |
| Preu: | 385 € Socis de l'Euskal Etxea<br>550 € No socis | + Els cursos on line i el presencials tenen el mateix preu.<br>+ Es pot pagar a terminis.<br>+ Si a l'hora de fer la matrícula us feu socis de l'Euskal Etxea i després, abans que acabi el curs, deixeu de ser-ho, haureu de pagar la diferència de preu del total de la matrícula. |

## Pagament:

**Al moment d'entregar el full de matriculació heu d'abonar tota la matrícula o, si trieu pagar a terminis, una taxa de 100 €.** La resta us l'agafarem mitjançant domiciliació bancària. Hi ha tres modalitats de pagament:

| | Paga l'alumne | | L'Euskal Etxea cobrarà del banc | | | | | | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Opció A: | 385/550 € | | | | | | | = | **385/550 €** |
| | Taxa de matrícula | | octubre | | novembre | | desembre | | |
| Opció B: | 100 € | + | 285/450 € | | | | | = | **385/550 €** |
| Opció C: | 100 € | + | 95/150 € | + | 95/150 € | + | 95/150 € | = | **385/550 €** |

**Si no us podeu integrar en cap grup, us tornarem la matrícula pagada.** Un cop començat el curs, en el cas de donar-vos de baixa abans de pagar tota la matrícula, no tornem les quotes ja pagades.

Dintre d'aquest preu no estan incloses les enquadernacions del material que utilitzem als nivells A1, A2 i B1.

## Com fer la matrícula:

**A l'Euskal Etxea:**

1. Horari de secretaria: 11:00-13:00 i 16:00-20:00 de dilluns a divendres. Telèfon: 93 310 22 00
2. Llegiu bé tot el full de informació.
3. Ompliu el full de matriculació (si falta alguna dada, cal donar-la abans de l'últim dia de matriculació. Si voleu pagar el curs en terminis no oblideu les vostres dades del banc. Si sou socis i voleu pagar del mateix compte, només cal posar "soci/sòcia" a les dades bancàries).
4. Pagueu l' import de la taxa de matrícula o de tot el curs (es pot pagar amb targeta).

**Mitjançant Internet:**

1. Envieu un correu electrònic a barcelona@euskaletxea.cat dient que voleu matricular-vos. Mitjançant un e-mail rebreu el full de informació i el full de matriculació.
2. Llegiu bé tot el full de informació.
3. Baixeu el full de matriculació al vostre ordinador i empleneu-lo (si falta alguna dada, cal donar-la abans de l'últim dia de matriculació. Si voleu pagar el curs en terminis no oblideu les vostres dades del banc Si sou socis i voleu pagar del mateix compte, només cal posar "soci/sòcia" a les dades bancàries).
4. Pagueu l' import de la taxa de matrícula o de tot el curs en aquest número de compte de La Caixa: ES56 2100 1089 70 0200039109. Al concepte poseu "euskara + el vostre nom i cognom" perquè nosaltres puguem saber qui ha estat el que ha pagat. Potser haurem de demanar-vos una còpia del comprovant de d'ingrés, guardeu-lo bé **(la taxa NO la podem cobrar del vostre compte).**
5. Envieu-nos un e-mail amb el full de matriculació emplenat i la data del pagament perquè el nostre administratiu comprovi que no ha hagut errors.
6. Si pagueu el curs a terminis i no heu pogut signar el full de matrícula, heu d'imprimir el full de matriculació amb tot omplert i portar-lo **signat** el primer dia de classe.